



TOLOSAKO  
UDALA

## **2018KO DEIALDIA, 4. ERANSKINA, TOLOSAKO IKASTETXEEI IGERIKETA KANPAINARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO, NORGEHIAGOAKO ERREGIMENEAN.**

### **1. OINARRI ARAUTZAILEAK**

Oinarri hauei aplikatuko zaizkie Lehen Hezkuntzako Tolosako ikastetxeek, Eskola Kirolaren, urtero egiten duten igeriketa kanpainarako diru-laguntzak eskatzeko eta emateko kiroletako ordenantza arautzailean (4. eranskina) egindako aldaketak. Aldaketa horiek, behin betiko onarpenaren zain, 2018ko maiatzaren 29an Udal Batzarrak egindako Osoko Bilkuran onartutakoak dira.

Igeriketa ikastaroak LEHEN HEZKUNTZAKO 1. 2. eta 3. mailako ikasleei zuzenduta daude. (15 saio, hiru astetan). Desgaitasuna duten ikasleen kasuan, eskolan dabiltzan bitartean ikastaroak egin ahal izango dituzte (Ikasturteak irauten duen bitartean, astean behin).

### **2.- IKASTETXE ONURADUNAK**

Aipatutako oinarrietan arautzen diren diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte baldintza hauek betetzen dituzten ikastetxeek:

- 1.Egoitza Tolosan izan behar dute.
- 2.Ikastetxeek izen-emateak egin behar dituzte Aldundiak Eskola Kirolean izena emateko duen aplikazio informatikoa erabilia.
- 3.Diru-laguntzaren eskaera formalaren inprimakia betetzea.

### **3.- ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEAK**

2018. urtean, diru-laguntza horien eskaera egiteko (inprimakia) eta harekin joan behar duen dokumentazioa aurkezteko lehen eguna izango da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo eguna, eta argitaratu denetik hogeit egunetara itxiko da epea.

Memoria eta kontu zurigarria, berriz, deialdiaren urteko urriaren 31 bitarte aurkeztu ahal izango dira.

Ezinbestekoa da eskaera (inprimaki formala) eta dokumentazio osagarriak Tolosako Udalaren erregistroan aurkeztea, ahal dela, erregistro telematiko bidez (korreo elektronikoa ez du balio eskaerak aurkezteko). Nolanahi ere, eskaerak aurkezteko prozedurari 2015/39 Administrazio Prozedura Arautzen duen Legearen 16.4 artikulua xedatzen duena aplikatuko zaio.

### **4. DOKUMENTAZIOA**

Diru-laguntzaren **eskaeraren inprimakiarekin batera** aurkeztu beharreko dokumentuak dira, oro har, oinarri espezifikoetan (4. eranskinean) xedatutakoak: memoria (A4 inprimakia), jarduerari dagozkion fakturak eta horien ordainagiriak.

Eginiko eskaeretan edo haiekin batera aurkeztutako eranskinetan akatsen bat badago, interesatuei eskatuko zaie 10 eguneko epean aurkitutako akatsak konpon ditzatela.

### **5.-DIRU LAGUNTZEN BANAKETARAKO IRIZPIDEAK**

Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak oinarri espezifiko hauetan (4. eranskina) xedatutakoak dira.

### **6.-BALORAZIO BATZORDEA**

Eskaeren balorazioa kiroletako zuzendaritzaren lan izango da; dagokion txostena egingo du, diru laguntzen banaketaren proposamena eginez. Diru laguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan



TOLOSAKO  
UDALA

### **7.-DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA**

Emandako diru-laguntza ikasturtea amaitzen denean ordainduko da, onuradunak justifikazioko dokumentazioa-aurkeztu ondoren.

### **8.- FINANTZIAZIOA ETA AURREKONTUA**

Baimendutako gastua 20.000 eurokoa da, aurrekontuko 1000.481.01.34100 kontu-sailaren kargura.

### **9. JAKINARAZTEA**

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearenak, bere 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

### **10.-EBAZPENAREN EPEA**

Prozedua ebazteko epea memoriak eta kontu zurigarriak aurkeztu denetik sei hilabetetara izango da.

### **11.- BALDINTZAK EZ BETETZEA**

Ondoren aipatzen diren egoeretako bat gertatuz gero, eskatzaileak jasotako diru-kopurua itzuli beharko du eta laguntza ordaindu den unetik sortutako interesa ere ordaindu beharko du:

- a) Deialdi honetan edo kontzesio-akordioak ezarri dituen epeak betetzen ez baditu.
- b) Diru-laguntza ematerakoan arrazoi gisa hartu zen helburua betetzen ez badu.
- c) Oinarri arautzaileak (4.eranskina) ezartzen dituen betebeharrak bat betetzen ez badu.

### **12.- DIRU LAGUNTZEN ARAUDI ERREGULATZAILEA**

Deialdi hau agiri honetako oinarriek zuzenduko dute, eta hemen aurreikusten ez dena azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorrak.

### **ESKAERA EREDUA**

Eskaera orria, memoria eta kontu zurigarriaren inprimakiak lotura honetan eskura daitezke: [www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus) (udala atalean/tramiteak)